

DIRU-ITURRIAK

Ordainketa bakarreko diru-sarrerak izango dira, hau da, ordaindu beharreko diru kopurua mementoan ordainduko da eta ez zatika; izan ere, poltsen prezioek ez dute izugarritzko balioa izango. Gainera salmenta gehienak online bidez izango direnez kontu korrontetik transferituko da dirua, beraz ez da arazo nabarmenik aurreikusi. Proiektuak printzipioz aparteko diru-sarrerarik ez du izango; aurrera begira, agian patente bat aurkeztuko da eta bertatik sortu daiteke diru-iturri bat.

Prezioei dagokienez finakoak izango dira, hots, aldagai estatikoen arabera aurredefinituta daudenak. Horien artean bi mota nabarmenduko dira: batetik, ezaugarrien arabera jarriko direnak, esaterako, material ezberdinetako poltsak egingo direnez, oihalezko poltsa batek larruzko batek baino prezio baxuagoa izango du. Horrez gain, prezioak bolumenaren arabekoak ere izango dira, beraz, gero eta poltsa gehiago erosi orduan eta merkeagoa izango da ale bakoitza.